

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1990eko Ekainak 22, ALE BEREZIA

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean




Roberto Mendi

SAN JUANAK 90


A R R A S A T E
K I R O L A K - e k

Kontzeziño 8, ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIE ARRASATEAR GUZTIEI



**SAN JUAN JAI
ZORIONTSUAK OPA
DIZKIZUE
ARRASATEKO
UDALBATZAK
MONDRAGOETAR
GUZTIOI**



ZENBAKI

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialdea

ARETXABAETA

Tfnoa: 79 88 75

79 75 99

XARAMELA

kafetegia

Loramendi kalea 1.

Tfnoa: 79 61 64

PAZI-OLA

Zaldizpe kalea 2,


Tfnoa: 79 29 94

ARRASATE

**Osorik
pub**

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

Agurra



San Juan eguna heldu da eta, elkar gaitezen berriro, betiko herri zahar honetan zer den berri jakiteko.

Su beroaren ingurutxoan, behin ekinari ekinez, aztiekin dantzatzera; zaharrak berri egingo, gogo betez kantatzera.

Eta dei dezala askatasuna, herritik urrun barreiatu ditugun

preso eta errefuxiatu guztientzat,

San Juan gaueko danbor hotsak.

Atsegin dakizuela egitarauan, atseginago jaia bera.

Ondo passau!

Alkatea

Oihana lorategia

Arrasate Pasealekua 8, Tfnoa: 77 14 56



MUSIKA TRESNAK ZURE ZERBITZURAKO

MUGARRI

FORD-MUGARRI, S.A.

90eko UDAN ESKAINTZA APARTAK

**ESCORT
ORION**




FORD FIESTA,
urteko automobil aukeratua

Jaiegun atseginak izan ditzazuela!

MERKATUKO GARANTIAK ONENAK
Okasio ibilgailuak, marka guztietakoak
"SCORPIO" eta "SIERRA" MODELO BERRIAK 1990ean

Zer egingo duzu San Juan jaietan?



Juan Guridi
(jubilatua)

Ahal baldin badut mendian pasako ditut jaiak eta ilunkeran herrira jaitsiko naiz.



Matilde Martin
(langilea)

Ondo pasatzen ahalegindu, baina zoritxarrez, lana egin behar dut.



Maite Azurmendi
(etxeoandrea)

Jaietara jaitsi eta herrian egon. Urtero egoten naiz jaietan, ez dut uste kanpora joan beharrik dagoenik



Gregorio Frances
(langilea)

Ondo pasatu eta disfrutatu.



Anboto

INBERTSIO ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Anboto

**SAN
JUANETAN,
ARAZOAK
KITTO!
PASA JAIK
EDERTO**

Eman 1etik 10erako puntuazioa San Juan jaiei




Ana Lasaga
(langabetua)

Zazpi bat edo. Nire ustez urtetik urtera, jai makalagoak dira.



Joseba Heriz
(langilea)

Bost bat edo. Nire ustez ez dago antolaketa; zerbait egiten duten bakarrak kuadrilak direla uste dut.



Haritz Alcalde
(ikaslea)

Hamar bat. Jai oso onak direla uste dut



Felisa Gallastegi
(jubilatua)

Zortzi bat eman beharko. Dena dela, gu ez gara hor saltsan ibiltzen eta azken urteetan kanpora joan izan gara.

Epelde ARGAZKILARIA

1965 • 1990

argazkiaren zerbitzuan
25.URTEURRENA



Iturriotz 24, Tfnoa: 79 19 71 ARRASATE

HIRE

Liburudenda


lagunik onena
liburu bat omen da

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

Garibai
5

tabernak
Jai zoriontsuak
opa dizkizu
Garbai 5, Arrasate

Aukeratzetik bazenu, zein musika talde gustatuko litzaizuke ikustea Arrasaten?




Maite Ijorra
(ikaslea)

AC-DC taldea Monterronen ikustea gustatuko litzaidake.



Aitzol Axpe
(ikaslea)

Niri AC-DC taldea ikustea gustatuko litzaidake eta hemengoan artean, *Su ta Gar*



Aitor Lopez
(Ikaslea)


AC-DC taldea, jakina.




Maite Alcalde
(ikaslea)

Aukeratzetik banu, *Ramones* taldea ikusiko nuke gustora.

DENA KIROLA EGITEKO



LORAMENDI



KIROLAK

- PALETAK
- ZAPATILAK
- BOTAK
- MOTXILAK
- CAMPING-DENDAK




**T
A
B
E
R
N
A**

I R A T I

**ZORIONAK!
eta bisita gaitzazue.
Ez izan beldurti!**

Ferrerias kalea Tfnoa: 79 71 80



Staufffer[®]
C O N C E P T - e k

**JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIE
ADISKIDE GUZTIEI**

**ETORRI GUGANA ETA ZUK ERE
ESANGO DUZU "ZEIN ONDO
NAGOEN!"**



Munar 8, Tfnoa: 77 02 49 ARRASATE

**comercial
SUMOFIC, S.A.**

**ZERBITZU INFORMATIKOAK
ENPRESA-GESTIO INTEGRATURAKO PROGRAMAK, STANDARak ETA NEURRIRA**

**DATU-BASEAK
OFIMATIKA
MANTENU ZERBITZUA
* Ekipamendua eta programak
* Telemendua**

Bidebarrieta kalea 24,1.ezk. Tfnoa: 70 11 67 / 70 28 66 Fax: 76 42 49. EIBAR

San Juan Jaiak 1990. Egitaraua

✓ EKAINAK 16, LARUNBATA

- Goizeko 10etatik ordubata arte, Kirolegian Herriarteko *Judo Txapelketa* (sub 17).
- Goizeko 10.30etan, Iturrieko Pilotalekuan XI. *San Juan esku pilota* saria Benjamin, Alevin, Haur eta Gazteurre mailatan.
- Goizeko 11etan, Kirolegian *Halterofilia* Txapelketa.
- Arratsaldeko 4.30etan, Atxabalpen *Rugby* partidoa.
- Arratsaldeko 7etan, *Umeen Danborrada* Eskoriatzako Musika Bandarekin, kaleetan zehar ibili ondoren Herriko Plazan bukatuko da. SUCDeK antolatua.
- Gaueko 10.30etan, Herriko Plazan *Txintxarri* taldearen eskutik *Dantzaldia*.

✓ EKAINAK 17, IGANDEA. HAURREN EGUNA.

- Goizeto 9etatik ordubiak arte, *Aire zabaleko pintura lehiaketa*; egindako lanak Monterroneko Erakusketa-Aretoan jarriko dira. Sari-banaketa, aretoan bertan arratsaldeko 6etan egingo da. Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruak antolatua.
- Goizeko 10.30etan, Sebero Altuben *Makailo* lehiaketa.
- Goizeko 10.30etan, Nafarroa Etorbidean bilduko dira umeen dantzarien taldeak.
- Goizeko 10.45, Nafarroa Etorbidetik Herriko Plazaraino Ume dantzarien taldeen *Desfilea*.
- Eguerdiko 12etan, kaleetan zehar Dantzari-Taldeen *Kalejira* eta *Dantzak*.
- Arratsaldeko 5etan, Herriko Plazan Dantzari-Talde guztien *emanaldia* eta *Agurra*. Txikitxu eta Lore Gazteak antolatua.
- Arratsaldeko 6etan, Seberon Haurrentzako *Tortila* lehiaketa

- Arratsaldeko 7.30etan, Herriko Plazan *Dantzaldia Gaurko Berri* Taldearekin.

✓ EKAINAK 19, ASTEARTEA

- Arratsaldeko 7etan, Monterron Kultur Etxean Hitzaldi Aretoan *Arrasate-89* eta Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren III. Lehiaketako sarien argitalpenaren *aukezpena*. AEDK antolatua.

✓ EKAINAK 22, OSTIRALA

- Gaueko 10.30etan, Monterroneko Parkean *Mikel Laboa* eta *M-ak* Taldearen emanaldia. (eguraldi txarra eginez gero, Kirolegian izango da).

✓ EKAINAK 23, LARUNBATA

- Goizeko 10etatik eta iluntzera arte, Amat, Koop. E.ko lursailetan *Usakume Tiraketa IX. San Juan Saria*. Leintz Bailarako Ehize eta Arrantza Elkarteak antolatua.
- Goizeko 10etatik arratsaldeko 6ak arte, Zaldibarko Pilotalekuan *Voleibol* Jaia.
- Goizeko 10etatik aurrera, Atxabalpen "*Copa de Arrasate*" *Futbol* Txapelketaren *azkenak*. Haur, Alevin eta Benjamin mailatan.
- Goizeko 10etatik arratsaldera arte, Kirolegian Lau Talderen arteko *Saskibalo* txapelketa (Emakumeak).
- Arratsaldeko 3etan, Herriko Plazan *Etxafleroak* eta *Bonba japoniarra*.

LENIZ

AUTO ESKOLA



BADUKAGU AUTOBUSA!!!

ARRASATE - ESKORATZA

ZORION BETEA
OPA DIZUE

enara
osagarriak



Maalako Errabala 21
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32

- Arratsaldeko 4etan, *Txirindulari lasterketa* Handia, neska-mutilek parte hartuko dutelarik, Benjamin, Alevin eta Haur mailatan. Ibilbidea: Udala Plaza, Uribe Auzoa, Eskola Politeknikoa, Gipuzkoako Foruen Plaza.
- Arratsaldeko 4.30, Herriko Plazan *Azkona* Taldearen emanaldia.
- Arratsaldeko 5.30etan, Kuadrilak Musakolan elkartuko dira *Txopoa* ekartzeko.
- Arratsaldeko 6.30etan, Kuadrilek *Txopoa* jasoko dute Herriko Plazan. Ondoren San Juan "*Txupinazoa*" eta kanpai errepika.
- Arratsaldeko 7.30etan, San Juan Bataiatzailearen Parrokian *Salve Solemnea*, Lore Gazteak Taldeko Txistulariekin.
- Arratsaldeko 8etan, *Arrasateko Erraldoi* eta *Kikilien Konparsaren desfilea*.
- Gaueko 10.30etan, Herriko Plazan *San Juan sua* Lore Gazteak Taldearen laguntzaz.
- Gaueko 11etan, Nafarroa Etorbidetik irten eta Herriko kaleetan zehar, *Nagusien Danborrada*, Azkoitiko Musika Bandarekin. Bukatzeko, Herriko Plazan Juan Artzamendik konposatutako *Gora Arrasate!* Danborradako Himnoaren estrenaldia. SUCDeK antolatua.
- Ordubatetik aurrera, Herriko Plazan *Bries Taldearekin Dantzaldia*. Kaleetan zehar *Arrasateko gaiteroak*.

EKAINAK 24, IGANDEA. SAN JUAN EGUNA.

- Goizeko 8.15etan, *Diana Arrasateko gaiteroekin*.
- Goizeko 8.45etan, entzierroko partehartzaileek *Maritxu Kajoiri eskaintza*.
- Goizeko 9etan, *Entzierroa*, Ferrerias Kaletik irten eta Erdiko Kale eta Iturbidetik pasa ondoren, Roneoko orubean kokaturiko Zezen Plazan bukatuko da. Ondoren zaleentzat Zezen Plazan Bingantxak izango dira.
- Goizeko 11etan, San Juan Bataiatzailearen Parrokian Meza Nagusia.

- Goizeko 11etan, *Arrasateko Erraldoi* eta *Kikilien Konparsaren desfilea*.
- Eguediko 12etan, Udaletxean *80 urtetik gorako Aiton-Amonei omenaldia*.
- Eguediko ordubatean, Monterron Parkean *Kontzertua Bilboko Udal Musika Bandaren* eskutik. (eguraldi txarra eginez gero Amaia Antzokian izango da).
- Arratsaldeko 4etan, Herriko Plazan *Sebastopoleko Titiriteroen* emanaldia.
- Arratsaldeko 5etan, kuadrilentzako *Jokuak*.
- Arratsaldeko 7etan, Zezen Plazan *Zekorketa* Gasteiz eta Bilboko Eskoletako lau zekorkarien eskutik.
- Arratsaldeko 7etan, *Koxkola* txarangarekin *Kalejira*.
- Arratsaldeko 7.30etan, Sebero Altuben *Trikitilari* eta *Barriketeroak*. AEDK antolatua.
- Gaueko 10etan, San Frantzisko Elizan *Arrasate Musikal* eta *Gorosarri Abesbatzaren Kontzertua*. Egitaraua:

1. Atala

- Obertura, Sol Minorrean.....A. Bruckner
- Gayane, Ballet AukeraA. Khachaturian
- Gabonetako oratorium-aJ.S. Bach
- 21. Choral-aJ.S. Bach
- Magnificat.J.S. Bach

2. Atala

- GloriaVivaldi
- Aleluia.Haendel
- Gora Arrasate!Juan Artzamendi
- San Juan Himnoa
- Agur Jaunak

- Gaueko 11etan, Herriko Plazan *Inguma* Taldearekin *Dantzaldia*
- Gaueko 11.30etan, Santa Barbaratik *Suzko Errubera ikusgarriak*.
- Gaueko 12etan, Herriko Plazan *Zezen suzkoa*
- Goizaldeko ordubietatik aurrera, *Hauts gaua*.
- Goizaldeko 3etan, Kondekuan *Zine komikoaren* emanaldia.

**San Juan "koloretsuak"
opa dizkizue**

**VICTOR
RUIZ MELGAR**

pintoreak

Erdiko kale 32, 4.
79 12 63 (9etatik 1era eta 4etatik 8etara)
ARRASATE



**DE LA
TORRE**

**Elektrogailuak
HIFI-TB
Ordenadoreak**

Olarte 13,
Bañez Doktorea 14,
Tfnoa: 79 25 96

Arrasateko EUSKO ALDERDI JELTZALEAK, San Juan jaia zoriontsuak opa dizkizuite





ARRASATEko UDALA

Ekainaren 27tik irailaren 15era arte, Udaletxeko bulegoak itxita egongo dira arratsaldez eta honako hau izango da jendearentzako ordutegia: goizeko 10etatik eguerdiko ordubiak arte.

Bestalde, uztailaren 5ean, bulegoak lekuz aldatzen direla eta, Udaletxea itxita egongo da jendearentzat.

Uztailaren 6an Herriko Plaza Nagusian kokatuta dauden Udaletxeko bulego berrituak zabalduko dira.

Udaltzaingoaren bulegoak, berriz, ekainaren 20an aldatuko dira Udaletxe berrira.

Alkatea



ARRASATEko UDALA

Arrasateko Udalak beharbidetarik ematen ditu UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAN parte hartzen duten arrasatear guztientzat.

Eskariak aurkezteko epea uztailaren 14ean amaitzen da. Eskariarekin batera matrikularen ordain-agiria aurkeztu behar da.

“San Juan 90” alean parte hartu dute:

Testuak:

Patxi Montero
Pepe Arregi
Mikel Irizar

Kolaborazioak:

Josemari Velez de Mendizabal
Jose Antonio Villar

Publizitatea:

Zorione Garitano
Eta Arrasate Press-eko
lan-taldea

Eskerrik beroenak ale berezi hau egiten lagundu diguzuen guztioi.

EKAINAK 25, ASTELEHENA

- Goizeko 7.45etan, kuadrilentzako *Txokolatada*.
- Goizeko 8.15etan, *Diana Arrasateko Gaiteroekin*.
- Goizeko 8.45etan, entzierroko partehartzaileek *Maritxu Kajoiri eskaintza*
- Goizeko 9etan, *Entzierroa* aurreko eguneko ibilbidetik. Ondoren zaleentzat *Bigantxak* izango dira.
- Goizeko 9.30etan, 1. eta 2. mailako afizionatuentzako *Txirindulari Lasterketa*, 53. *San Juan Saria*. Ibilbidea: Arrasate-Oñati-Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza-Aretxabaleta-Arrasate-Oñati-Arrasate-Aretxabaleta-Untzilla Gaina-Arrasate-Aretxabaleta-Untzilla Gaina-Arrasate-Oñati-Arrasate.
- Goizeko 11etatik ordubatera eta arratsaldeko 3etatik 6etara, Ignacio Zuloaga kalean eta Kondekua Zelaian *Haurrentzako Ikuskizuna* (Kars pista, puzgari erraldioa, zezen mekanikoa...)
- Goizeko 11.30etan, Eskoriatzako *Musika Bandaren kalejira*.
- Eguerdiko 12etan, Sebero Altuben *Txalaparta* saioa.
- Eguerdiko ordubatean, Herriko Plazan Eskoriatzako *Musika Bandaren kontzertua*.
- Arratsaldeko 6etan, *Eskalada ikuskizuna* Erramon Irastortza eskalatzaila *Garibai Dorrea* igotzen saiatuko da.
- Arratsaldeko 7etan, Zezen Plazan *Zezenketa Jailadia* kuadrilen partehartzearekin.
- Arratsaldeko 7etan, *El Vengador enmascarado*.
- Arratsaldeko 7etan, Herriko Kaleetan zehar, *Kalejira Tximeleta* eta *Txalaparta* txarangen eskutik.
- Arratsaldeko 7.30etan, Seber Altuben *Zabale Anaiak Trikitilarien* emanaldia.
- Gaueko 10etatik aurrera, Herriko Plazan *Dantzaldia Lima y Ron* taldearekin.
- Gaueko 12etan, Herriko Plazan *Zezen suzkoa*.

EKAINAK 26, ASTEARTEA. KUADRILEN EGUNA.

- Goizeko 8.15etan, *Diana Arrasateko gaiteroekin*.
- Goizeko 8.45etan, entzierroko partehartzaileek *Maritxu Kajoiri eskaintza*.
- Goizeko 9etan, *Entzierroa* aurreko eguneko ibilbidetik. Ondoren zaleentzat *Bigantxak egongo dira*.
- Eguerdiko 11.30etan, *Kalejira Bergarako Musika Banda Gaztearen* eskutik.
- Eguerdiko 12etan, Sebero Altuben *Kuadrilen kontzentrazioa*.
- Eguerdiko 12.15etan, *Herri Txikiteoaren* hasiera *Incansables* txarangaren animazioaz.
- Eguerdiko ordubietatik 6ak arte, Zaldibarko Pilotaleku ondoan *Herri Bazkaria*. Goizeko 10etatik aurrera *Marmitakoa* Ondarruko *Arrantzaleek* gertatuko dute. SUCDeK antolatua. Tiket salmenta: Plus-Ultra taberna, Monte taberna, Kajoi taberna, Hire liburudenda. Ondoren izugarritzko animazioa *Eguzkirekin*.
- Arratsaldeko 4etan, Herriko Plazan *Haur antzerkia*. Goloka taldeak *Makina* tranformatzaila antzeztuko du.
- Arratsaldeko 6.30etan, Zaldibarko Frontoian *Esku pilota partidu* interesgarriak, Gregorio Uranga "Kirru" enpresario ospetsuaren zuzendaritzapean, ondorengo desafioa: teloneroa: *Langaran (Txikito de Beneras)*, *Reyes (Txikita de Elosu)*ren aurka; estelarra: *Agustin Beitia (Zipri)*, *Agustin Ibarluzea (Txispas)*ren aurka.
- Arratsaldeko 7etan, *Incansables* txarangarekin *Kalejira*.
- Arratsaldeko 8.30etan, Herriko Plazan *Tronpalari* erretzea.
- Gaueko 10etatik aurrera, *Berakatz Band-ekin Dantzaldia* Herriko Plazan.


EKAINAREN 23tik 26ra *Biteri* aparkaleku inguruan AEDK jarritako *Tonbola*.

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa - t/797658 Arrasate

UGARAN San Juanetan ere
ondo jan eta edan

**ONDO
PASA
JAIK**




**Arrasateko
jatetxea**

GATZAGA

Jatetxea

Olarte kantoia 3, Tfnoa: 79 84 53

Bainugela erakusketa



ibarluzea


Olarte 19-21, Tfnoa: 79 22 49 Arrasate

Zoriona eta alaitasuna opa dizkizue

MENDI tabernak

Mendi da zure etxea

Maalako Errabala 4, Tfnoa: 79 20 54



◀ **Fran Iturbe** bergararra musikatik baino musikarako bizi da. Urte dexente eman zituen berbena-taldeetan jotzen eta egun *Jotakie*-ko partaide dugu. Kitarra ederki jotzeaz gain, bere etxean estudiotxo dauka egokituta, non bere inbentotxoak egiten dituen. Adibidez, bereak dira ATBko programen sintoniak. Benetan lan polita egin zuen Franek. Eskerrik asko.

izen propioak

■ **MIKEL HERZOG, 27**, urteak direla Nekez talde berbererokan jo-ta-matra ibili ondoren, suertea probatu zuen Mikel Errekaren urratsak jarraituz. Arrakastarik lortu ez, eta orain *La Decada Prodigiosa*-n ari zaigu. Bere aldetik, **Goyitok**, Nekez taldeko baterijole sutsuak, berbenaren ildo berean jarraituz, Kedeke bere talde berriekin diska bat egin berri du, *La Decada-k* bezainbeste diru irabaziko ez badu ere. Hori bai, euskaraz. Aupa!



■ **KEPA ALTUBE, "KOPI"**, 25, txalaparta eta pinturaren munduetan bizi da. Besteak beste, R.I.P.en anagrama asmatu eta diskaren azalaren moldaketan lagundu, "*Musikantoi*" programaren dekoratuz arduratu eta Hertzainak taldearen azken diskoan txalaparta sartu zuen, "564" kantan. Bruguerekoek ohorezko bazkide izendatzekotan omen dabilta.

■ **JAVI HERNANDEZ, 29**, Eresikoa, aspalditik dabilkigu talde atzerritarrek gure artera ekartzen. Hasieran Estatuko taldeak izan ziren, Frantziako "O.T.H." eta "Cargo de Nuit" ondoren eta, azkenaldi honetan, berari esker gozatu ditugu, Arrasate, Txitxarro, Ilargi eta The End-etik igaro diren guztiak, besteak beste. Mila esker, bada, eta segi horrela!

▲ Arrasateko musika munduan eman den azken fenomenoa ATBko **Musikantoi** programa dugu. Dagoeneko pasa dira bertatik Arrasateko rock talde gehienak eta, adierazi digutenez, Deba Garai osokoak grabatzeko asmotan dabilta. Munduko zein herriko rokanrola maite baduzu, hor duzu Musikantoi ostiralero ATBn.

LANDALUZE

Harategia Urdaitegia

**GURE BEREZITASUNAK
URDAIAZPIKO, AHATEKI
ETA KEZKATUA.**

Iturriotz kalea 7, Tfnoa: 79 14 86 ARRASATE

SEAT

Udalaitz, S. A.

Audi



gure autoekin
gustora geratuko haiz

**GARANTIAK SENDOENA:
AUTOA ZAINZEN DIZUGU
ZU ZEU ZAINZEN ZAITUGU.**

Musakola auzoa z/g eta Zarugalde kalea 35, etxabea Tfnoak: 79 21 25 / 79 18 80 ARRASATE

GOROSTI
Jatetxea

Arimazuri plaza. Tfnoa: 77 06 07 ARRASATE


ITURRIOTZ
taberna

*Iturriotz
San Juanetan behintzat
ez izan bihotzean hotz*





▲
Jon Lasagabasterrek, *Vicious* eta *Irrintzi* taldeetan kitarran ibilitakoa, ez dio momentuz amaierarik eman nahi bere musika-karrerari. Multipista baten laguntzaz, kanta konposatu eta grabatzen dihardu, taldea osatzeko jendea noiz aurkituko zain. Heavy-a da bere mundua. Tartean, dendan txinto-txinto.



▲
 Auskalo zenbat talde pasa ziren Eskoriatzako **Esteibar** etxetik Punkaren urte haietan. Bizpahiru urte direla izandako elurteen ondorioz, behera etorri zen, material mordoxka barruan harrapatuz. Han ibili ziren trasteak salbatzen gaupasa eginez.

◀ **Subito-koek**, futbola dela eta, ia astirik ez kantu berriak egiteko. Izan ere, Enrike (argazkian) Pedruskon ari izan da eta Josu eta Pako, Mondran hasi eta hainbat ekipotan ibili ondoren, Alvesen dihardute gaur egun. Ea tartetxoren bat aurkitzen duzuen, berriro kitarretara itzuli eta guri zerbait eskaintzeko.

ONANDIA



ONAINDIAK
 opa dizkizue
 jai gozo
 eta handiak

Gozotegia
Izozkitegia
Dastalekua

Iturriotz 11, Tfnoa: 79 12 31 ARRASATE

Elkartasunezko jai-giroan!



Alaitasuna, poza, jolasa eta ilusioak gainezka dauzkagun une honetan, Herriarengandik hurbil egon nahi dugu. Herriaren zati bat sentitzen garelako. Horregatik, festa-giroan elkarturik, egun alaiak gozateko aukera, guztiona izan dadila.

**Euskadiko
Kutxa**



HURA BAI GAUA!

Josemari Velez de Mendizabal

dearen entseiuetarako Escuela de Aprendices-eko aretoak uzteaz gain, beste gisako laguntza batzuk ere eskaini zituena. Gutariko batzuek hari esker eskuratu ahal izan genituen, lehen aldiz, kitarra elektrikoak. Ametsa urte haietan!

Lehiakidetzaren berehala agertu zitzaizkien dragoiei. Rolling-en funtzio berbera bete nahian edo, *Los Jaguar* bostekoak erreperitorio egokia prestatu eta herriko zalegoaren zatiketa lortu zuen. Denborak ematen didan perspektiba zirriborrotatik aztertuta (beharbada, herensugeak autoktonoagoak direla pentsatzen dudalako ere) odolik

gabeko borroka musikalean laukotea irabazle gertatu zela iruditzen zait.

Bi talde horiei, arrakasta apalagoko beste batzuek jarraitu zieten, entzutetsuenetakoa "*The father and the boys*" izanik, Eskola Profesionaleko kapelau gazteak eta hiru ikaslek osatua.

"Conjunto" haien itzalpean eta -noski- irrati eta disken bitartez heltzen zitzaigun musika-injekzioak ongarriturik, giro eman-korra loratu zen Arrasaten. "Gurea" zine aretoko agertokiak bertako eta kanpoko taldeak norgehiagoketa ahaztezinetan aritu ziren, batez ere ikasketa bidaiaiko finantzatzeko antolatzen ziren jaialdietan. Gasteizko Los Aster eta Los Benar; Eibarko "Javi Campanas group" ziren igande goizetako agerpen liluragarri haietan maiz gonbidaturiko taldeak, zeintzuek -arrasatearrekin batera- Paul eta John, Mick eta Keith, Eric Burdon eta abar luze baten doinu arrakastatsuek helterazten zizkiguten, ahal zen bertsiorik duinenaz.

Hogeiabost urte eman ondoren, zenbait argazki horixkatu eta eskuko programaren baten salbuespenaz, ez zaigu garaiako musika irakidura hartatik beste testigantza materialik geratzen. Oroitzapena dugu iturri, hots, ezintasunaren baliabide etsigarria. Baina munduko lema astuna nota musikalen bidez eramangariago gerta daitekeela uste genuenongan hazitako itxaropenak bizirik darrai. Ene uste apalez, omenaldi txikia zor diegu gaztaroko urte gordin haietan, gure izpirituetan zuzi argigarria tinkotzen lagundu ziguten arrasatear musikoko pop-folk-rock... jator haie i

Musikaren denborako tu-
neletik atzerantz egiten
dudan bakoitzean, geltoki
berberara iristen naiz: nire
zenbait lagunekin batera Los Brin-
cos-en "Flamenco" ospetsuari itxura ematen
ahalegintzen ginen unera, hain zuzen.
Ez dut oroitzen -agian oroitzen nahi ez du-
dako- saio haietan ateratzen genuen soi-
nuak bertsio orijinalarekin antzik ote zuen
ala ez. Guk jotzen genuen, guk bakarrik
entzun eta -beraz- epailerik ezean, gure
kontzientziaren baitan utzi behar dugu
musika hari buruzko eritzia. Bego hor.

Hirurogeigarren hamarkadako hasta-
pen haietan arin xamar hedatu zen Arrasa-
ten, batez ere anglosaxoi zirkuituetatik iris-
ten zitzaigun musikarako zaletasuna.

Beste estilo serioago batek aurrea
hartuta -kontuan izan Orquesta Arrasate,
Los iris,- molde guztiak apurtzen zituen
musika "basatiak" herriko gazteen arreta
irabazi zuen, horren garapenerako saiaker-
etan atzean geratu ez ginelarik. Gure
herriak, sarri aipatu dudana bezala, nolako-
tasun apartak erakutsi ditu beti proiektu
berritzaileak hezurmamitzeko. Eta horien
gaineko lekukotzat har dezakegu, urte
haietan Arrasaten gorpuztu zen musika
mugimendua.


Beatles-ak baldin baziren munduko
idoloak, hemen herri mailan, Larrañaga,
Zubiaga, Mascariano eta Lemos genituen
gehienon sinpatiak bereganatzen zituzte-
nak: *Los Dragones*. Inoiz aipatua izan ez
den "gure" Brian Epstein ere bageneukan:
Juan Gorrotxategi "Juanillo" biatorista, tal-

J. ELORZA

HARATEGIA

GURE BEREZITASUNAK TXAHALKI
ETA BERTAKO ZEKORKIAK

Juan Bengoa 1, Tfnoa: 79 75 80 ARRASATE



ONDO PASA FESTAK!!!

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

Rock-a urte askotarako!



Amaia: Diputación Coral

Idazki honen bitartez nolabait islatu nahi nuke, ez bakarrik herri honetan rock egiten ari izan den jendearen historia, baina baita ere, musika honen inguruan bizi izan den giroa edo, zehazkiago, neronek bizi izan dudana; beraz, hemen esaten denak ez dauka zertan behin-betikoa izan.

Rock musikarekiko lehen harremanak bideren bitartez izan ziren: batetik, dantzaldien garaiari berbenaldideek "Verdury"-an eskeintzen zizkiguten bertsiak famatu haien bitartez (Creedence, Beatles edo Rolling-en kantak, atalataiko edota "helduta" dantzatzeko baladekin nahasten ziren), eta bestetik, nazioarteko rockari buruz lagunen batek emandako erreferentzien bitartez, edo utzitako diskoren bat medio (Joan Baez, Dylan, Creedence

"EDERTU"

ileapaindegia
San Juanetan ere
ondo apainduta hobe

San Andrea, 79 04 28



ce, Deep Purple, Pink Floyd..., ziren ohizkoenak).

Artean *Egan* oso indartsu zebilen eta hauen dantzaldietara joatea nahitaezkoa zen. Herrian ere bazen dantzaldi-talderik, ezin ahantzi ditugunak; hain ezagunak egiten ez bazizkigu ere, *Dragones*, *Jaguar's* eta *Iris* taldeek izan zuten zeresanik.

Nekez eta Koska taldeen ekitaldiak benetako rock kontzertuak ziren

Garai haietako euskal kantaldiek korrante rokerotik aldentuta eusten zioten; baina hemen *Errobi* taldearen papeira azpimarra nahi nuke, zeinak bere konponsaketak rock eskenan egokitzen edo moldatzen jakin izan bait zuen. Oraindik gogoan dut bikote honek Gurea zineman emandako kantaldia. "Ovation" kitarra akustiko birekin ahozabalik utzi ninduten, "Bluesmen" tankerako punteo haiekin; zoritxarrez, hiru abesti gozatze-ko parada besterik ez genuen izan, "Benemerita" orkestrakoak agertu bait ziren beste "punteo" ez-musikala eginez.

Une honetatik aurrera rockaren ingurua garatuz joan zen Arrasaten, eta nik lehen urratsa, batere samurra ez den lehen bultzada hori eman zuten bi talde azpimarratuko nituzke: *Vicious* eta *Doble Cero* (gerora RIP izango zena), lehenak rokanrolaren bidean eta punk-rock mugimenduaren barne besteak (indar handiz heltzen ari zen mugimendu berri hau, *Clash* edo *Sex Pistols* bezalako taldeen eskutik).



Vicius

Arrasaten, punk musikak izan dituen jarraikortasun eta ezaugarriak oso bereziak izan dira, behar bada Euskadiko beste zenbait lekutan hartu zuen kutsu "makarra" eta "biolentoa"-z kutsatu gabe. *Cirrosis*, *Nazka*, *Vioch-R*, *Pabellon Negro*, *Estorsion*, eta *Puñetazo* bezalako taldeek mugimendu honi bizitasuna ematea lortu dute, baina, dudarik gabe, guztien artean RIP zen jaun eta jabe (non geratu ziren Oreretako "Happy"ko kontzertu haiek!)

Popak, punkaren bizitasuna lortu ez badu ere, bere tokia izan du Arrasaten

ere; *Súbito Rubor*, *Doble Incongruencia* (*La Tentación*) eta *Matrona Impúdica* (desagertua jadanik, nahiz eta partaideren batzuk musikan diharduten) bezalako taldeek, punk musikarekiko bide paraleloa segitu dute denboran, baina, zoritxarrez, abesti polit ugari bidean galdu dira. Agian ez da behar bezala baloratu talde hauen lana, eta zuzeneko emanaldietarako ere ez dira askotan kontuan hartu. Are gehiago, bat baino gehiagok popa donostiar noño eta mukizuen gauza dela uste izan du, amodiozko istorioak eta soinu bigunak baino, bronka, borroka


ESTETIKA ZENTROA

lurrundegia, opariak, jostailuak

Z a r r a o a

Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19

Zorionak!
**ARRASATE
PRESS**



Gorka eta Joni: Imntzi

eta salaketa gehiago baloratuz. Edozein modutan, konposizioa arretaz zaindu dute talde hauek, eta egindakoa estudioan grabatzen arduratu dira; guztiarekin ere, zuzeneko emanaldiak urriak izan direla eta, entzulegoaren gehiengoak ez du haiek egindako lana ezagutzen.

Heavy-aren esparruan *Ajax* izan da talderik garrantzitsuen. Hau ere bidean galdu zen, baina beraietako batzuk oraindik musikan dihardute. Behar bada heavy musika "makarra" eta konprometitu gabekotzat jo izan da.

Ezin ahaztu, historia labur honetan, dantzaldi-taldeek rockaren normalizazioan suposatu dutena. Arrasateko zenbait musikaririk beren zatia aportatu dute *Oker*, *Lortu*, *Irrintzi*, *Berakatz band*, *Argia*, *Gaurko* edo *Stress* bezalako hainbat taldetan. Eskertzekoa izaten ziren talde hauek, rantxera, pasodoble eta



Doble Zero

Muruamendiaraz gozo-denda

Erdiko kale 28, Tfnoa: 79 15 34 ARRASATE

Nahi badituzu
jai gozoak
etorri pasteldegirantz.

CONSTRUCCIONES BOISA, S.A

CONSTRUCCIONES BOISA, S.A.k San Juanetako jaiegun zoriontsuak opa dizkizue arrasatear guztioi, eta aurtengo alaitasuna izan dadila iazkoa baino ere handiagoa.


Laster, BIFAMILIETAKO TXALETAK, kalitate gorenekoak, eraikiko ditugula jakin arazten diegu geure bezeroei.

Halaber, ETXEBIZITZA, GARAJE ETA MERKATARITZARAKO ETXABEHIAK ere eraikiko ditugu.

Foruen Plazan gaude, 1-etxabehea, San Andres-
Tfnok; 79 21 61 eta 79 64 32 Arrasate.

GALDEGIN KONPROMEZURIK GABE!

J. URIARTE PAPERDENDA



GURE BEREZITASUNAK:

- Idazketa
- Bulegorako gaiak
- Eskolarako gaiak
- Marrazketa teknikoa
- Idaztegiko gauzak
- Oparigaiak
- Apaingarriak
- Agendak
- Larrukiak

MERKATUKO MARKA
ONENEK BERMATU ETA
ABALTZEN GAITUZTE

ZATOZ IKUSTERA!



alecop

- HEZKUNTZ ZENTROETARAKO MATERIAL
DIDAKTIKO-TEKNIKOA
- SAIL ZURI ETA AUTOMOZIORAKO INSTALAZIO
TEKNIKO AUREFABRIKATUA

Loramendi z/g Tfnoa 79 75 11 Telex: 36897 ALEC-E Fax: (943) 799212 Posta kutxa 81 ARRASATE

Gretel

HAUR ETA
GAZTEEN
MODA



Otalora Lizentziatua 5, Tfnoa: 77 00 81 ARRASATE

arin-arinen artean, egiten zituzten bertsoiak.

Eta Arrasatekoak ez baziren ere, azpimarratzekoa da *Nekez* eta, batez ere, *Koska* taldeek zuten arrakasta, pilotaleku eta kiroldegiak "betetzera" iristen zirelarik; arrazoia, bi talde hauek zirela

Arrasateko gazteriaren artean rocka iharduera garrantzitsua da

garaiko abesti indartsuak gehien jotzen zituztenak (Pistols, Ramones, Pretenders, AC-DC...), dantzaldiak baino gehiago, ekitaldi haiek benetako rock kontzertu bilakatuz.

Gaurko panoramari buruz, ale berezi honetako beste sail batean izango duzue informazio gehiago. Hori bai, gaur egun Arrasateko gazteriaren artean rocka



Vioch-R

iharduera garrantzitsua dela argi dago, eta herri honetako agintariak taldeek behar dituzten lokal egokiak lortzeko konpromezua beren gain haurtuko balute, herriko rockaren maila askoz altuagoa izango litzateke.

Musikalki, nahiz eta oraindik taldeetariko askok punk-rockaren esparrua jorratzen segitu ("harrobi" ederra dago

hemen), panorama asko zabaldu da.

Talde berriek joera berriak bereganatu dituzte, eta soinu rockeroak eta kitarraren indarra gogor ezartzen ari dira, konposizioa geroz eta gehiago landuz.

Tamalez, euskararen presentzia talde hauen hitzetan oso urria da. Gutxi dira euskararen adierazpidea hautatzen duten taldeak. Zentzu honetan, ahalegina eskertzekoa izango litzateke.

Azkenik, ez nuke amaitu nahi, kontzertuak antolatzeko zenbait pertsona eta taldek egin dituzten ahaleginak gogorarazi gabe; "Laiso and Laiso colectivo", Javi Galicia, Gaztetxea, Amnistiaren aldeko batzordeak, AEK, eta beste zenbaitek, posible egin dute herri honetan *Ñu*, *Coz*, *Asfalto*, *Obus*, *OTH*, *Cargo de Nuit*, *Dr. Feelgood*, *Rythm Pigs*, *Fang*, *Vellocet*, *Motek*, *Crazy Cavan*, *The Lords of the new church*, *Stiff Little Fingers*, *Godfathers*, *Los Suaves*...taldeak ikusi ahal izatea.

Rocka, urte askotarako!!!

Pepe Arregi



Diputación Coral

KOPIOTXOA

Beti prest emateko laguntzatxoa

Fotokopiak

Planu-Erreproduzioak Enkuadernazioak

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82 ARRASATE

Ondo pasa!
ARRASATE
PRESS

O
P
A
R
I
A
K



GALERIA 44

ZORIONAK ARRASATEAR DENORI
ETA JAIK ONDO PASATU

ERAKUSKETAK

O
S
A
G
A
I
A
K

KAJOI


TABERNA

**Mila
zorion
arrasatearroi!**

**LASTER GURE
UDA-TERRAZA
ZABALDUKO DUGULA
JAKIN ERAZTEN DUGU.**

Erdiko kale 22, tfnoa: 79 32 27

Arrasate Auto-eskola



**Olarte 30,
Tfnoa: 79 89 89**

**Jaietan utzi autoa eta
saltoka egun osoa**

**Klase praktiko
eta
teorikoak**

JOSE ARANZABAL



Markarik onenak:

SONY
THOMSON
PHILIPS
FAGOR
AEG
BOSCH

KOLTZA


Sukaldeko altzariak: Bañez dokorea 8,

- Apaintzaile tituludunak egindako proiektuak
- Muntaketa, arotzen kontura.
- Kasu bakoitzera egokitutako banaketa eta aurrekontua
- Finantziazio ezin hobea.

ELEKTROGAILUAK
KAMERAK
BIDEO
HI-FI
TB



AKOBEren *garantia eta zerbitzuaz*



JOSE ARANZABAL

LASTER IREKIKO DUGU DENDA BERRIA BAÑEZ DKT. 2an



RIP

Oraindik gogoratzen ditut, 80. hamarkadaren hasieran, Donostia inguruan eta Errenterian gehienbat, RIP taldearen edo, Doble Cero-ren, Mallabik abesten bait zuen orduan, lehenengo kontzertuak.

Zenbat bider jo zuten "Por milk"! Gubxienez gasolina ordaintzeko adina, ta "benga", kotxea hartu eta fuego.

Baina beno, anekdotak aparte eta balorpen edo eritzia ematekotan, talde honi buruz zenbait gauza aipatuko nituzke.

Lehenengoa, eta niretzat inportanteentankoa, RIP taldeak rock munduan zabaldu dituen ateak, gero beste talde batzuk bide musikal horretan ari ahal izateko. Eragin nabarmen hori oraindik ikusten da Euskal Herriko taldeetan; eta edozeini honi buruz galdetuz gero, garbi dago eritzi bera botako lukeela.

Aipatzekoa da baita ere talde honek izan duen arrakasta, eta nola gorde den arrakasta hori urte guzti hauetan zehar punta-puntan.

Zer dela eta izan da beti errespetatua, nahiz eta ia errepertorio berdinarekin ari izan?

Zer dela eta gordetzen da oraindik talde honen izpiritua?



Zer dela eta...?

Erantzuna ez da batere erraza, baina, behar bada, musikari dagokionez goi mailako poesia (oso poesia kontzeptuala niretzat) eta munduaren ikuspegi zorrotza lotzea lortu dutelako; eta, pertsonak bezala, baloratu ez dituztelako gaur egun hain ohizkoak diren baloreak: dirua, harrokeria...


RIP-ek nire barnean utzi duen arrastoa ez zait sekula ahaztuko.


Javi Sayés

Javi Sayés: "BASATI" diskaetxeko arduraduna. "Destruye" fanzinenaren egilea. Donostiako Txantxangorri Irratiaren kolaboratzailea.



**Arrasateko EAk
jai zoriontsuak opa dizkizue
arrasatear guztiei**





Musikatik garraiora

RIP-en garaian ere hor ibitzen ziren Txerra eta Yul aitari laguntzen kamioiaz; aita hil zenetik, ordea, bien artean daramate garraioaren ardura, Arrasate-Bilbo eguneroko bidaletan.

Argazkia zela eta, kamioia garbitzeko aprobetxau zuten; behar bada horregatik atera da hain polita.

"Diputación Cora" -eko esperientzia asko gustatu zitzaion, baina ez zeuden erabat ados joerak erabakitzean. Hala ere, musikara bueltatzeko amorru bizian daude. Zer prestatuko ote digute?

Carlosek ere garraioetan dihardu, autobus gidari bait da orain. Umeak eskolara eraman batzuetan,



ertzainak Arkautera bestetan..., edonora, nagusiak agintzen duenaren arabera. Hori bai, gustora. Bere aldetik, Portu, garraioan ez, baina sarritan ikusten dugu bizikletan gora eta behera.



“Hasiera-hasieratik RIP taldearen fan izan naizenez, ezin dut eritzi objetiborik bota, baina ziur nago munduan ari izan den punk talderik onenetakoa Arrasatekoa zela”.

Fermin Muguruza (Egin Irratia)

“Mahoma antzeztokian, Euskadiko laupabost solista handietarikoa iruditu zait, baina musikalki ez naiz izan RIP-en fan bere urrezko garaian; honek nire lagunekin etengabeko eztabaidak izatera eramaten ninduen. Zenbateraino gustokoak nituen ohartu nintzenerako, ordea, nire lagunek RIP akabatuta zegoela zioten”.

Marino Goñi (Oihuka disketxea):

“Arriskuaz, mugez maiteminduak. Gizartearekiko gorrotoaren milintanteak. Kaosaren, “eskoria”ren iraultzaileak. Hiritarren azken, azkenaurreko, azkenaurrekoaren aurreko belaunaldia, bere egia bortitzak rockaren zarataz botatzearen ariketa nobleari lotua. 80. hamarkadako euskal rock lurrikararen talde-irudia”.

Iñaki Zarata (Devorame. Diario Vasco)

“Punk-rock mugimenduaren barnean, RIP Euskadiko talderik hunkigarriena izan zen. 82-83 urteak bitartean, Arrasatekoen magnetismoak ez zuen mugarik. Musikak, jokaerak eta irudiak, menperatu egiten ninduten. Ondotxo dakite nire belarriek, nire kamarak eta nire bihotzak. Eskertzen dizkiot, azkenik, RIP-i, gordetzen ditudan milaka oraitzapenak”.

Pablo Cabeza (Radio, Euskadi)

Miren Arrieta

GURE ZORION-AGURRIK BEROENA ARRASATEAR GUZTIOI!

ESTETIKA ETA LURRUN ZENTROA

Zerkaosteta 12, Arrasate Tfnoa: 79 00 35.

Puntako tratamenduekin: Zelulitisa eta argaltzeko sistema.

Aurpegiko lifting ez-kirurgikoa.

Gainera, estetika-zerbitzu zabala.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Guipúzcoa

Milena Arrieta
ESTRELA ETXERRE
12. Anzalea Tiroa 79 00 35

Musika arina

Jose Antonio Villar

egiten. Baina Liverpooleko mugimendua besterikt izan zen: musika arina "kosk" guztietatik erantzi zuen; egitura aldetik, erritmo, melodia, harmonia eta baldintza guztiei askatasun osoa emanaz.

Ordurarteko musika arin guztia "Blue" sistemaren baldintzapean egiten zen harmonia aldetik, tonoen arteko erlazio jakinean. Sistema ezagutuz gero, rutina jakinekoa batetik bestera... Baina aipatutako askatasunetik aurrera, rutinari ari gineno nahiko aldatz-gora egin zitzaigun era berri hori onartzea. Benetan!

Beste eratako aldaketak ere erakarri zituela esan behar. Egile eta saltzaileen arteko tirabiratan indar erlazioak parekatu, belaunaldi berriaren bandera-ezaugarri bihurtu, eta abar.

Orduetik gaur arteko musika arinak ez du aldaketa garrantzi handikorik izan, nire eritzian, eritzi hori "karroza" batena baldin

bada ere, eta oraingoa delarik, berekoitasunez jantzia; baina eritzi berekoi guztien baturak eritzi objetiboa lortzeko balio duenez gero, neurea ere hor, batugarri.

Gaur gaurko musikari jartzen zaizkion izen-abizen ugariek ez daukate musikaren barne-egiturarekin zerikusi handirik. Oraingo hau iragana izango den unean, ikerketa sakona egiteko gai izango gara, baina, ikerketa hori egitean ez dute musikariak, nere ustez, lan handirik izango, elkarte-jokaerekin zerikusia duten gai-aztertzaileek baizik.

Gizakiak berez omen du, gizabakar edo talde bezala, bere nortasuna inguruko adierazteko sena, eta nortasun-agiri bezala, inguruko ulertuko dituzten sinbologiak erabiltzeko joera...

Bada, gaur egun, musika, edo hobeki esanik, bera interpretatzeko era ezberdina, teknologi mailak barne, hartu ditu gazteriaren gehiengo batek ezaugarri edo bereizgarritzat, halako edo honelako talde edo taldekideak eginikoa nolabaiteko erdutat.


Eta, nik, neure aldetik, erantzunik gabeko galderatan bukatuko nuke. Ezaugarri eta bereizketa horiek, zenbateraino oinarritzen dira musikaren egitura desberdinean? Garrantzizko diren beste ezaugarri edo bereizgarri batzuen on edo kalterako lirarete aukeraketa horiek? Zenbaterainoko nortasunaren jabetasunez egiten dira aukeraketok? Zenbateraino aurrez-aurreko irudi-sinbologia horien bidezko komunikazioak murrizten edo gehitzen ditu beste eratako komunikazioak

Beti esan ohi da historia sinesgarria idazteko iraganari buruz egin behar dela, ikuspegi orokor batetik egin ahal izateko, aldi berekoari buruz egitean norberekeria alde batera uztea oso zaila gertatzen delako.

Horregatik, oraingo musikari buruz eskatu didaten bezala zerbait idaztean nere oraingoa "Sixty"etakoa izan beharko litzateke, nire lagun Jose Marik astindu dituen "Sixty"etakoa hain zuzen ere, urte haietan izan bait nintzen musika arinak jasan zuen iraultzaren lekuko, beste eratako iraultzen oharpenik izan gabe gainera, ni ere 68ko maiatzaren sozialista jendetzarekin Parisen topo egitera joan ez nintzelako edo...(Zortzi urte lehenago egin bait nuen hango egonalditxo. Hala ere, behar baino lehen joan behar! Kaka zaharra! eta behar baino lehen, beranduegia bezain desegokia...).

Baina, gatozen gure gaiaren harira. Nire ustez, "musika arina" izenez ezagutu izan dugunaren jaiotzetik honaino, benetak iraultza edo aldaketa (bakarra ez ote?), musikaren egiturari buruz diot, "Sixty"etakoa izan zen (barkatu, Jose Mari, izena berriz lapurtzeagatik), Beatles eta bere kidekoek protagonizatutakoa, hain zuzen ere.

Garai hartan musika egiten edo desegiten ari ginenok, ez genuen Rock and Roll-a, adibidez, aldaketa bezala hartu, musika egiturari dagokionez diot berriz, baizik eta dantzatzeko edota bizitzeko era berri bezala, agian, musikaren araudia, erritmoa barne, mugatu baizik ez zuen



DUO DISEÑO

**OBRAS
BARRUKALDEAK
BULEGO ALTZARIAK
PROIEKTUAK
OSAGIAK**



ITURRIOTZ 21,
Tfnoa: 79 28 86

ARRASATE



OMU

MOSAIKOAK, S.L.

50 URTE ERAIKUNTZAREN ZERBITZURA

- Industri eta hirigintzarako baldosak
- Zoladura eta gaineztadura zeramikokoak
- Terrazoa eta "compact" marmola
- Parket flotagarriak

Erakusketa: Otalora 1, Etxabehea. Tfnoa: 79 07 20
Biltegia eta Bulegoak: Meatzerra Auzoa z/g. Tfnoa: 79 14 28

Æ ELKORO

✓ **TELEYCO**-Telefonia homologatua
Telefax: 125.000 pta.tik aurrera

✓ **COLMATIK**: Ikuztailuak, Hozkailuak hiru urteko FAGOR garantia

✓ **EKAINEKO ESKAINTZAK**

Midi+Compact Disc + agintea: 57.000 pta.
VHS BIDEOA + agintea: 39.000 pta.
21'ko Telebista + agintea: 52.000 pta.

✓ **SATELITE TELEBISTA**

65 zm-ko ofset antena + polarizatzailea
50 auresintoniadun hargailu+MD
1.2 Db-ko kanpo-unitatea: 89.000 pta.


✓ **Bideo-Kluba**: dena 100 ptn.
(Larunbatetan zabalik)

Maala Errabala 31, Garibai 10,
Tfnoa: 79 18 86 79 45 99

AX NEW YORK

CITROEN BERRIA

Ikusgarria da NEW YORK!



Gainera, Citroën AX New York irrati-kaxetailu stereoz eta bozgorailuz hornitua dago, guztiz doan, eta 70.000 pta.tik 100.000ra arteko aurrezkiaz. Zatoz AX New York Citroen berria serie mugatua ikustera. Beteko dizu begia!

AX NEW YORK Citroën berria. Serie mugatua.

1.090.000 pta. Fabrikatzaileak gomendaturiko salneurria (F.F.+ BEZ. Garraioa ez dago sartuta)


ESKAINZA HONEK, PENINTSULA ETA BALEAR IRLETAN STOCK-EAN IBILGAILUEN ESKARIETARAKO BALIO DU. EZIN DAKIEKE GEHITU BESTE PROMOZIO-ESKAINZA BATZUEI.

BESTE MODELO BATZUK
150.000 pta.ko aurrezkia
 Hiri horietan AX PREMIER modelotik,
 aurrera itzazu 150.000 pta.
 Eskatu informazioa AX garmako gaiteraketan
 dagoen eskaintza aparez



CHAPIME Tailerrak Araba Etorbidea, z/g telefonoak: 79 06 57/79 45 22 ARRASATE

Berriro...



B-I-O-N-A
T-A-B-E-R-N-A

beatriz

Narruzko oinetako on batzuen bila bazabiltza,
BEATRIZ Oinetako dendan aurkituko dituzu:
KOLLFLEX, LOTTUSSE, FERRERIAS, etab.

Atsedenaldi eta lanerako, *ROMIKA*.

Gainera gerriko eta boltsa eskaintza paregabea.

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33 ARRASATE

Monte taberna

jaietan ere
neurrian edan
eta ibili tente

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56



DDDP

Udako gau zoragarri batean" ezagutu zuten elkar Jose Villar eta J.A. Barrenak. Mertxan eta Feliperekin elkartu eta aurrera atera zuten taldearen asmoa, DDDP, lokala uzten dien Don Pabloren omenez. Guzti hau orain bi urte.

"Guk Heavy Metala egin nahi genuke, baina rock gogorra besterik ez zaigu ateratzen". Gauza da makina bat ordu eman dituztela lanean eta kontaezinak direla dituzten abestiak.

Bi maketa grabatu dituzte, iazko udan bata eta aurtengo urtarrilean bestea. Azken honi esker "Villa de Bilbao" II. pop-rock lehiaketarako aukeratuak izan ziren.

Momentuz ez dute kontzertu askorik izan, baina aurrerantzean saioak ugalduko direlakoan daude. Horretan dabilta,behintzat. Maketa berria ere iragarri digute. Aber, ba!

HERIOTZA

Bizpahiru urte direla elkartu ziren izen honen pean bi eskoriaizar eta hiru arrasatear. Hasiera batean, bere gaztetasuna zela eta, ziren batez ere ikusgarri; baina Txotxe, Xabi, Iñigo, Aitor eta Josuk gauzak ondo egiteko gai direla erakutsi digute makina bat ekitalditan.

Hasieratik ibili dira jo-ta-jo atse-denik hartu gabe. Iazko udan, adibidez, zazpi kontzertu eman zituzten Holandako lurretan.

Gabonetatik maiatzera bitartean entseiu lokalean sartuta ibili dira, material zaharra birmoldatu eta berria prestatzen. Aitorrek ere ez du jadanik Heriotzan abesten eta orain Xabi bera bakarrik moldatu behar.

Oraingoz udan jo eta ke aritzea da taldearen asmoa.



MALAÑA

Bost urte daramatza Malaña taldeak batetik bestera. Agus, Kolilla eta Josemak osatzen dute hirukotea. Tresneria berria eta iazko udan grabatutako maketa kalean, baina lokalik ezak haien iharduera normala oztokatzen du.

Rokanrola egiten dute eta etiketak ez dituzte batere gogoko; euren kantetarako gaiak kalean aurkitzen dituzte.

Auskalo zenbat emanaldi eskaini dituzten urte hauetan; Aste Santutan, adibidez, Sevillako lurretan izan ziren Reincidentesekin batera itzuli txikia egiten, eta San Isidroko jaietan Madrilén jo zuten.

Hirurak lanean ari dira eta honi esker ordain dezakete erositako materiala, Euskadin rokanrolak ez bait du dirurik ematen.

Azken orduko berria: abuztuan lehen LP-a grabatuko dute. Sevillako diskete baten bitartez.

OSASUN ETA UMORE ONA OPA DIZKIZUE

Lore lurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

URREZKO BITXIAK
ERLOJUAK

Erdiko Kale 23. Tfnoa: 79 20 47
ARRASATE

NAROKI



SS-77

Dudarik gabe, hau izan da azkenaldi honetan arrakastarik handiena lortzen ari den herriko taldea. Patxi, Andoni, Piraña eta Iñigo, 88-ko udazkenean hasi ziren musikaren mundu honetan lan egiten. Iazko udan maketa bat kaleratu, eta ondoren emanaldiak hasi ziren, makinatxo bat, hamar hilabeteotan.

S.L.F-en bidetari jarraitzen diote musikari dagokionez eta laster (Durangoko azokarako edo) beste hiru talderekin batera grabatuko duten lehen plastikoa ikusiko dute kalean. Suerte, bada!

ULTIMOS RECURSOS

San Andresekoak dira eta 18-19 urte artean dabilza. Jose Manuel "Apolo", Diego, Gotzon, Juanma eta Dominguezek osatzen dute "azken baliabideak".

Lau bat urte direla izan zuten talde bat egiteko ideia, baina bi urte pasa ziren abiatu arte.

Mailegu bat medio, materiala erosten joan ziren, eta aurrerakoa Laupabost ekitaldi eman dituzte eta iazko udazkenean maketa grabatu zuten. Adierazi digutenez, entseiatzeko lokal baten faltagatik ez balitz, askoz aurreratuago egongo lirateke, eta ekitaldi mordoxka galanta emanda.

Konposatzeko orduan, "Tijuna in Blue" eta "La Polla Records" dituzte eredutzat.

Soldadutzak ere nahikoa izorrratu die taldea.



XEMENTERIO

Bi urte t'ardi inguru daramate martxan Aramaioko Xementerio taldekoek.

Aramaio aldean rocka suspertu egin zen orain urte batzuk, baina talde haiek desegin eta Xementerio sortu zuten Iban, Guerrero, Mikel, Gorka eta Pitxik.

Lagun bati tresnak eskatu eta hor hasi ziren entseiatzen. Egun Udalak zinema uzten die xede honetarako.

Punkaren inguruan mugitzen dira eta abestien letrek bizi dituzten esperientziei buruz hitzegiten dute. Batez ere presoen egoerarekin sentitzen dira konprometiturik.

Orain, soldaduzka dela eta, geldi xamar daude, baina laster kontzertuei berrekiteko gogo biaz. Azken finean hori bait da gustokoen dutena.



Jai zoriontsuak

TROKO
JANTZIDENDA

Olarte 6, Tfnoa: 79 46 94 ARRASATE

LURRINDEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B.

Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

ZAKARRAK

Zakarrak taldea orain dela lau bat urte osatu zen. Petete, Michael, Xabier eta Oskarrek, Udalak antolatutako kontzertu batetan parte ahal izateko jo ta sua entseiatu zuten, eta ordutik ez dira gelditu. Hilabete batzuk direla Patxi elkartu zitzairen, kitarrak indartuz.

Lau urte hauetan lokal finkorik aurkitu ez. Hau dela eta, zuzeneko emanaldien kopurua ez da oso handia izan; oso jarraitzaile amorratuak dituzte, haatik, eta horrek aurrera segitzeko indarra ematen die.

Beraien kantuek punk eta skin musikaren kutsua dute, *Skrewdriver*, *4 skins* edo *Sham 69*-en eraginak nabarmenak direlarik. Musika indartsu-alai eta testu bortitz-bapatekoak nahasirik. Oi!

ANGIOLILLO

(Bergara)

Angiolillo bergarar taldekoak nahiko urtetsuak dira besteekin konparatzen baditugu, 30 urteak atzean utzi bait zituzten. Halere, rockean aritzeko adorerik ez zaie falta. Hiru bat urte daramatzate mugida honetan, hobbyztat hartzen dutena, besterik gabe.

Orain arte ezin esan asko jo dutenik eta, musikari dagokionez, "denetatik" egiten dute, Rockaren barruan beti ere. Oso gogokoa dute *Siniestro Total*-en estilo alai eta marxosoa.

Hilabete batzuk direla "Gaeko" izenburua daraman maketa grabatu zuten Gasteizko "Cuvyco" estudioetan. Euskara hutsean abesten dute eta hauek dira taldekideak: Xabier Latorre, Esteban Muruamendiaratz, Iñigo Barruso, Xabier Mujika eta Iñaki Gallastegi, konfiantzazko gizona.



SPOK

(Bergara)

SPOK-en sorrera oso bapatekoa izan zen. Valen-ek "bizitza osoa" zerman talde bat egiteko asmoz; azkenean, jendea bilatzeaz nazkatuta, 87-an Ibon harrapatu eta berak zekiena erakutsi zion. Kreditutan sartu eta falta zitzairen oinarritzko materiala erosi zuten. Guzti honen ondoren elkartu zitzairen Imanol, baterijolea.

Lokala lortzeko arazo handirik ez zuten izan, aintzindariak izan bait dira talde lokalen azken pizkunde honetan. Ekonomikoa dute arazorik larriena, langabezian bait daude, eta dirua ahal den tokitik atera behar.

lazko urrian hasi zituzten zuzeneko emanaldiak, 11-ren bat dagoeneko, gehienak Bergaran bertan.

"Rock-piscinero" a egiten dute, beraien hitzetan, igeritokian bait daukate lokala. Orain maketa egitekotan dabilta.


OYAL

Zure umea modan
nahi baduzu jantzi,
ikus ezazu OYAL

Erdiko kalea 48, Tfnoa: 79 18 00 ARRASATE

Hilbera kafetegia

Uribarri etorbidea
ARRASATE



HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera
- Fresatzeko makinak
- Zenbakizko kontrola
- Mekanizazio-zentroak
- Tornuak
- Artezko makinak, etab.


Zaldispe kalea 10, ARRASATE
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61
Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97

Gojain Industrial Poligonoa. 24 Apartatua
Tfnoa: 945; 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53
Telefax: 45 54 74 AGURAIN

V
E
C
T
R
A

Besteen amets eta nahiak
zuk gauzatu eta eskuratzeko aukera duzu.

*¡Opel, inoiz
baino hobea!*



BEREHALA
EMATEN DIRA

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena auzoa, z/g. Tfnoak. 76 33 44/45/46. BERGARA (Gipuzkoa)

Erakusketa Arrasaten: Loramendi, 2. Tfnoa. 79 05 86

DEBA ARRO, LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIRAKO KONTZESIONARIA

Kontzesionari ofizialak

OPEL 
Hobeak esperientziagatik



ARRASATEko UDALA

Beka-deialdia

Arrasateko Toponimia jaso eta finkatzekoa

- Bekaren helburua, Arrasateko toponimia bildu, sailkatu, kokatu, aztertu eta finkatzeko proposamena egitea da.
- Beka jaso ahal izateko honako baldintza hauek bete beharko dira:
 - a) Euskal Filologiako ikasketak amaituta edukitzea edo ikasketa horietako azken urtean egotea.
 - b) Aurreko baldintza bete ezean, beka nori eman erabakiko duen epaimahaiaren eritziz "curriculum vitae" egoki eta nahiko frogatua izatea.
 - c) "Toponimoen bilketa eta finkapena Arrasaten" gaiari buruzko txostena aurkeztea.


Eskaerak Arrasateko Udaletxeko Idazkaritza Nagusian aurkeztu beharko dira 1990eko uztailaren 20a baino lehen. Eskatzaileak laugarren oinarrian azaltzen diren baldintzak betetzen dituela kreditatzen duten ziurtagiriak ere aurkeztu beharko dira, nahitaez, eskaerarekin batera.

Era berean, "curriculum vitae" a aurkeztu beharko da.

Bekaren zenbatekoa: 840.000 pezetakoa izango da, 60.000 pezetako 14 zatitan banatuta.

Lana egiteko epea: 14 hilabetekoa.

HERRÍ Irratia



Radio POPULAR
G I P U Z K O A

DONOSTIA

Garibai, 19
Tel. 42 36 44
Fax. 42 78 21

O.M. 1.224
F.M. 88'5

LOIOLA

Azpeitia
Tel. 81 44 58
Fax. 81 39 44

F.M. 99'8



ZAZTADA (Bergara)

Xelebrea, hauen hasiera: Potik bateria erosi eta banaka-banaka elkartzen joan zitzaizkion gainontzekoak: Elorza, Ander, Berasa eta Lijo (argazkian bi falta dira). Elortza eta Berasak musika ikasketak dituzte eta Bergarako bandan eta orkestran dihardute; honek, ziur aski, abestiak egiteko orduan erraztasuna emango die.

Jai batzuetan txozna bat jarri eta diru mordoxka lortu zuten, tresneria erosteko aukera eman ziena.

Iazko urtearekin batera hasi ziren, soto batean. Kosta zitzaien Udalaletik lokala lortzea, baina azkenean irabazi. Orain hiru talde daude lokal txiki horretan eta Udalak ez du poltsikoa gehiago hustu nahi.

Oso gutxi entseiatzen omen dute, bat soldaduzkan, beste bat lanean eta besteak ikasten ari bait dira; gainera, datorren ikasturtean kanpora intengo dute ikastera gehinek. Halere hiru aldiz jo dute jadanik eta aurrerantzean ahal bezala entseiatzen eta jotzen segituko dutela adierazi digute. Maketan ere pentsatzen hasiak dira.

ESKORIATZA

Bost bat urte direla osatu zen bere herriaren izena daraman talde hau; orain hiru urte, jadanik jotzen hasiak zirela, Pepek Joakin ordezkatu zuen baxuan. Ondoren ez dute aldaketarik izan.

Suso, Errasti, Xabin eta Pepek, beraz, ekitaldi ugari eman dituzte, kontaezinak, Euskal Herri guztian zehar, baina batez ere Gipuzkoa eta Bizkaian. Gehienetan gaztetxetan eta Euskararen aldeko jaialdietan ari izan dira, Euskaraz abesteko konpromezua hartu bait zuten.

Bi urte direla E.P. bat grabatu zuten, sei abestiz osatua, urtebete geroago "Basati" kaleratuko zuzena. Dagoeneko 1.500 kopia saldu dituzte.

Hardcorea praktikatzen dute, Skin zenbait ikuturakin. Azkenaldi honetan konposizio landuagoak egiteari ekin diote, "Metal"aren eraginez eta eritmo berriak saiaturaz, beti ere bizkortasuna gordetzen dutelarik. Baina, beti bezala, lokal propiorik ezak lan egiteko posibilitateak murrizten dizkie.



AMONAL (Oñati)

Bi urte dira hasi zirela. Hasieran hiru besterik ez ziren, Koki, Iñigo eta Atxa, baina laster elkartu zitzaien Jimmi bere ahotsa aportatuz.

88ko urriaren lehenean izan zuten debuta, desastretzat jotzen dutena. Ordutik dexente hobetu dira.

Azken hilabeteotan aldaketa batzuk izan dituzte (orain bi kitarra dira) eta prestatzen ari izan dira. Behar bada udan lehen maketa grabatuko dute, momentuz ez bait dute inolako grabaketarik.

Kreditu baten bidez materiala hobetzen joan dira eta momentuz gutxi jo badute ere, etorkizunari begira itxaropentsu agertzen dira.

Badirudi egingo duten lehenengo gauza izena aldatzea izango dela, beste talde batzuk bait daude izen honekin.

Suerte, bada, oñatiarrentzat.

**SAN JUAN JAI
ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE
HAURTXOAK**



Arrasate Pasealekua, 4
79 14 90 ARRASATE

Gretel

**HAUR ETA GAZTEEN
MODA**

Otalora Lizentziatua 5, Tfnoa: 77 00 81



HOR KONPON

(Oñati)

1 987. urte inguruan sortu zen talde hau eta ordutik hiru fase izan dituztela esan liteke. Lehenengoa poperoagoa, kanta melodikoak eginez (88ko Aste Santuan kaleratutako maketak ispiatzen zuen bezala), bigarren fase batean rokanrolera hurbildu zirelarik. Bigarren fase honen fruitu Gabonetan kaleratutako "Aitatxo baten semea" maketa dugu, non rocka nagusitzeaz gain, euskal tresna folklorikoak nahasten dituzten, soinua eta txirula, alegia.

Azken fasea taldean izandako aldaketek ekarri dute, izan ere, lehen laukote zena seikote bilakatu da: bi kitarra, baxua, bateria, soinujolea eta txirularia, hain zuzen ere. Abenturaren protagonistak, Xabi, Andoni, Koki, Iker, Mikel eta Oskar.

Errepertorioa ere erabat aldatu omen dute, zuzeneko indarraren bila.

Etorkizunari begira, plastikoan ari dira pentsatzen, Elkar disketxearekin harremanetan daudelarik.

Arsenal

Cirios

Monte Beer

Izenik Gabe

E

z zaio falta

Deba Garairi musika ekimenik, rockaren arloan behintzat. Asko dira prestatzen diharduten taldeak. Bergaran, adibidez, lau bat gazte-talde ari da ahal bezala lan egiten; ahal bezala, zeren eta udalak ez du dagoeneko lokaletan diru gehiago gastatu nahi, taldeetakoek adierazi digutenez. Aretxabaleta eta Eskoriatzan ere badaude hainbat talde prestatzeko bidean.

Baina Arrasaten finkatuko gara. Guk dakigunez, sei asmo berri daude martxan:

- **Pichones:** Mikel Montoia, Javi Arizabaleta, Iñaki Agirreurreta, Txema Valles eta Geoff Bate. 26-28 urte ingurukoak. Momentuz ikasten dihardute.
- **El desvan del macho:** Izkue anaiak eta V. Mijangos. Maketa bat atera berri dute; rock iluna egiten dute.

Eta gaztetxoan taldeak, badirudi orain serio kiango planteatzen dela talde bat egitearena, eta irteko orduari jakine zinaren beldurra badiote ere, ahal bezain urrun iristeko adorerik ez zaie falta. Musika motaren esparrua ere zabandu egin da, dagoeneko ez da soilik punk egiten, eta rokanrola geroz eta protagonismo handiagoa hartzen ari da:

- **Arsenal:** Luis, Mikel, Coilla eta Foto. 16-17 urte inguru.
- **More beer:** Jose Mari, Paco, Juanjo eta Cabezas. 17 urte inguru.
- **Cirios:** Jose, Roberto, Ignacio eta Oskarrek osatzen dute oraingoz, baina bigarren kitarra bat sartzekotan dabilta. 17 urte inguru.
- **Iñigo,** Enrike eta Jokinek 15-16 urte dituzte eta beste kitarra bat sartzekotan dabilta. Taldeak oraingoz ez du izenik.

T
FERRERIAS

Fotokoplak
Enkuadernazioak
Planoen errepro-
duzioa
Offseta

FAX
PUBLIKOA
DUGU

Ferrerias, 23. fnoa: 79 46 62
ARRASATE

BELUN
taberna
Lagunarte bikaina

Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14




MIKEL LASA

aseguru artekaritzak

**JAI ZORIONTSUAK OPA
DIZKIZUE**

MAALA ERRABALA 33 ETXEBEHEA, Tfnoa: 79 69 00 ARRASATE



RASO ERAIKUNTZAK

Ondo pasa jaiak!

Aranburuzabala 19, Tfnoa: 79 75 03 ESKORATZA

EYA

elektratresnak

**etxeko lanak
egin ditzala makinak
festatan eta beti**

Iturriotz 21, Tfnoa: 79 03 14
Erdiko kale 27, Tfnoa: 79 13 79

Mondragonesa Grafikagintza

*Arrasatearrei San Juanetan
gure esker onena eta aintza*

**Paperdenda
Mahaigaineko tresnak**

Erdiko kale, Tfnoa: 79 12 63

LORATEGI

San Juanetan ere

ondo pasatu

eta ez edan gehiegi

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

**FESTA ATSEGINAK NAHI
DITU ZURETZAT**

URRIN tabernak

Uribarri Etorbidea 22,
Tfnoa: 79 95 24

**KAZOLATAN
ESPEZIALISTAK**



**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otalora Z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE



KILI-KOLO

Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE

**Gazte!
KILI-KOLOn jantzita
festetan kilikagarri**



**San Juanetan demaseko
girue ta denontzako
erregaluak
AEDren tonbolan.**

**Ondo pasau San Juanak,
euskeraz ahal bada!**

**24ean, Igandea, 7etan eta
Seberon,
XABIER AMURITZA eta
JON SARASUA
bertsotan.**

SASKI-NASKI

lehiaketa

Asteroko sariak



KOLTA

Aranzabal Akobe
elektrogailuak

IRRATI-
-IRATZARGAILUA



MELIA BIDAIAK

Etxe Aundi jatetxea



AFARI BAT
BI LAGUNENTZAT



**OKIENDO
KIROLAK**

ZAPATILAK



Ikatz

argazki etxea



ARGAZKI MAKINA
AUTOMATIKOA

SARITUA

HURRENGOA ZEU IZAN ZINTEZKE

Galdera:

Astero-astero galderarik erraz eta samurrenak

ASTERO-ASTERO SARI

KILIKAGARRIAK ZURE

ESKURA, SASKI NASKI

LEHIAKETAN PARTE


HARTUZ GERO

Erantzuna:

Izen-deiturak:

Helbidea: *Herria:* *Tlfnoa:*

Jaiak direla eta, Arrasatera hurbiltzekoak dira M-ak. Bertan partaide den Kaki Arkarazorekin egon nahi izan dugu, musikaren arlo ezberdinetan egiten ari den lanak errepasatzeko. ETBko "Funtzioa" programaren soinu-kontrollean aurkitu dugu, Miramonen.



Kaki Arkarazo, Musikan murgildua

Telebista, irratia, grabaketa-estudioa, M-ak, Matxinadak, produkziogintza... eta orain Negu Gorriak. Musikaren atal gehienak jorratu dituen Kakik aspalditxoan, euskal musikan guztiz atipikoa den figura bilakatu arte.

I Komunikabideak

Euskal Telebistan izan zen lehen musika programaren egilea dugu Kaki, "Popazoro" zelakoa. Irratian, berriz, programa ugari egin du, bertan finkatu duelarik musika euskaraz aurkezteko modu martxoso eta berria.

"Esperientzia haiek garai batean ondo egon ziren, ordurarte egin gabekoak ziren eta interesgarria izan zen. Irratian ondo pasatu nuen, baina telebistarena oso gogorra izan zen, asteoro programa prestatu, grabatu... Telebistan jende askok hartzen du parte Programa egiterakoan, eta oso nekeza da guzti hori mugiaraztea. Han oso estresatua bukatu nuen. Bestal-

de, telebistan nahiz irratian besteek egingako musika aurkeztera mugatzen nintzen, eta orain, berriz, musika hori egiteko aukera daukat, eta gehiago gustatzen zait. Ez dut uste bueltatuko naizenik."


II Estudioa

Kaki IZ disketearen arduradun teknikoa da. Hori da bere lanbidea eta estudioan ematen ditu eguneko ordu gehienak.

"Aurten IZ-n oso gogor gabiltza. Uda bitartean totalen hogeitamabost produkzio aterako ditugu, horietatik hamazazpi diskoak: Minxoriak, Egan, M-ak, El Limite, Negu Gorriak, Delirium Tremens, Sonora

NEREA

UME MODA
LENTZERIA
BAINUJANTZIAK



Erdiko kale 28, Tfnoa: 79 13 43 ARRASATE

BAZAR

TOKI ON

ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA

J. Carlos Guerra 1,
Tfnoa: 79 91 64

Candela, Euskadiko Orkestra... Gogorra izan da, baina aurrerantzean lasaiago ibiliko gara.

Hiru edo lau urtetik hona egiten ditugun diskoak hobeak dira, azpiegitura teknikoa hobetu delako, alde batetik, baina baita ere geuk ikasi egin dugulako. Dena batera joan da Azpiegitura aldetik orain oso ondo gaude, bitarteko onak ditugu eta nahi duguna egiteko erabili ahal ditzakegu. Teknika aldetik, Elkar eta IZren estudioak oso ondo prestatuak daude, nazioarteko mailan dudarik gabe. Estudioko musikoak ere oso onak dauzkagu, hala nola Bixente Martinez, Delirium-eko Iñigo Muguruza eta M-akeko Irazoki bera...

III Produkzioigintza

Duela oso gutxirarte, produktorearen papera ia ezezaguna zen euskal musikan. Normalean, talde batek grabatu nahi zuenean estudioa hurbiltzen zen, bertako teknikoek grabatzeko bitartekoak jartzen zizkieten eta hor iriteten zen diskoa, besterik gabe. Dagoeneko gauzak dexente aldatu dira.

"Hemendik kanpo produktoreak grabatu aurretik egiten du lan handia taldearekin, kantak prestatu, ideiak finkatu, etab.

Hemen azken bi urteotan hasi da produktorearen papera finkatzen. Taldeek gero eta gehiago landu nahi ditzute beraien lanak eta aldi berean produktorearen ofizioa ikasten joan gara batzuk. Dena den, hemen taldeak gehiago errespetatzen ditugu, erabakiak ez dira inposatzen. Gainera, nik ez dut uste produktorearen

"Oraintxe oso momentu onean nago, kristoren martxarekin"

lana -bereziki nabaritu behar denik edo produktoreak estilo jakin eta beti berdina eduki behar duenik. Nire ustez produktoreak ez du bere seilu propioa utzi behar diskoan, bestela taldea izorratzen arituko da. Ez, taldearen estiloa azpimarratu behar da produkzioarekin."

IV M-ak

Bada dozena erdiren bat urte M-aken lehen diskoa kaleratu zela. Oso arraroa izan zen garai haietan egiten zen euskal musikaren ondoan. Eta ez zuen apenas arrakastarik lortu. Oraintsu kaleratu dute bostgarrena. Eta hau ere nahiko arraroa da oraindik, diferentea. Baina M-ak talde arrakastatsua bihurtu da, estatuko abangoardian kokatzen dute kritikok.

"Orain hiru urte gure jaialdietara ez zen jenderik etortzen, eta orain berriz, jendea etorri egiten da, kantak badakizki buruz... Nik uste dut jendea ekarri egin dugula gugana, gure erizpideak ez dira gehiegi aldatu. Gertatzen dena da belaunaldi berri bat iritsi dela jaialdietara, gazte belaunaldi berria, musika mota gehiago entzuten dituen eta erizpide zabalagoak dituen."

Eta jeneralean ere joera hori egon da. Kontua da oraintxe guk, ez dugula geure burua aparte edo arraro ikusten, baizik eta musika gaztearen ardatz inportanteenatariko baten barnean.

Azken diskoari buruz, egia da orain artekoak baino gogorrago dela, baina hori ere ez dugu premeditazioz egin. Gu ez gara taldetik bizi eta horregatik aldaketa ugari izaten da taldean. Oraingoan batera berria hartu dugu, lehengoa joan zelako, eta elkarrekin lanean hasi garen hori irten da. Diskoa sinpleagoa da, zuzenagoa, matizetan galdu duguna zuzentasunean irabazi dugu. Kantak ere gogorrak egin ditugu, leloak laburrak, batzuetan monosilabikoak, inpulso baten bila edo..."


V Matxinadak

Ustekabean, 87an bakarkako diskoa atera zuen Kakik, Matxinadak izenekoa. Disko instrumentala, hau ere arraroa, esperimentalta.

"Hori gauza akzidentala izan zen, Diputaziotik diru bat atera zen disko bat egiteko, Anjel Katarainek lortu zuen, eta bion artean egin genuen, nik lehendik neuzkan material batzuekin. Estudioko lana izen zen, guztiz instrumentala. Dena den, bide hori ere jarraitu nahi dut, musika ambientalarena, alegia. Datorren urtean irtengo da Matxinadak 2."

VI Negu Gorriak

Eta duela gutxi, azken sorpresa. Fer-



AHIZKE-CIM Koop. E.

ACEIG-FECElko kidea
Cambridge Unibertsitateko PETeko
Batzorde Antolatzaileko Kidea

**"Hizkuntza bat gehiago,
muga bat gutxiago"**

JAI ATSEGINAK IZAN DITZAZUELA!

Araba Etorbidea 4, tfnoa: 79 01 32 ARRASATE



**BETI ONA
GIMNASIA DUZU
ZORION ETA
OSASUNA**

GIMNASIOA

Uribarri 12,
Tfnoa: 77 00 67
ARRASATE

min eta Iñigo Muguruzarekin Negu Gorriak taldea osatu du Kakik, musika atal berria jorratu asmoz. Taldearen lehen diskoa egunotan aurkeztu da.

"Negu Gorriak urtean zehar pixkanaka eta sekretupean egin dugun lana izan da. Orain hamar hilabete hasi ginen biltzen eta hor ari izan gara astean behin entseiatzen eta diskoa prestatzen. Oraintxe jaso dugu diskoa eta oso ondo gelditu da, oso gustora gaude. Oinarria rockeroa da, bi kitarra, Iñigorena eta neurea, "erritmo kutxa" ere asko erabili dugu, baina eritmo sinpleetan, ez gara rap-aren eritmo lan-duetan sartu. Eta horien gainean ahotsa, beti diskurtsoak botatzen, rap egiten, baina oso modu bitxian. Ez da rap konbentzionala, adibidez Madrilen eta egiten ari dena. Ferminek oso ondo adaptatu du rap-a bere hitzegiteko modura, oso ondo egin du lan hori, eta gelditu da gauza oso orijinala. Geuk ere ez genuen hasieran espero diskoa hain ondo geratuko zenik, geratu zaigu "de alucinar". Bertan sartzen ditugu sampling-ak, diskoen scratch-ak, euskal bertsoak, irrintziren bat ere badago, reggae-ren bat, oso konbinazio berezia, baina gure ustez oso ondo geratu dena

Esan beharra dago Negu Gorriak-ek ez duela zuzeneko jaialdirik emango. Baina baditugu bestelako ekintza batzuren asmoak, eta taldeak aurrera jarraituko du, ez da gauza puntuala izango. Dena den, honek ez du interferituko gure beste lanetan. Iñigok Delirium-en segituko du, nik M-aken eta Fermin bere gauzetan"




VII Etabar

"RIPen 87ko diskoareh grabaketan parte hartu nuen eta oso oroimen ona daukat, oso ondo bukatu genuen. Lan relampagoa izan zen, asteburu batean grabatu eta bi egunetan nahastu, baina disko harek arrakasta handia izan zuen, uda hartan ikaragarri entzun zen. Banaketa izan zen kaskarra, mila disko egin, haiek saldu eta jasotako diruarekin beste mila egin. Bost mila kolpean egin izan balira, segituan salduko ziren."

"Entzuten dudana musikaren artean, rap-ak ematen dit martxa, New Yorkeko rap-ak bereziki. Saltsa ere asko entzuten dut, Ruben Blades, Oscar de León... Eta bestela heavy, funky eta rap-a nahasten

entzuten talde potenteak. M-aken, adibidez, Red Hot Chili Peppers izan da aspaldian ikaragarria eta erreferentzia inportantea Beraien azken diskoa, ikaragarria da."

"Oraintxe oso momentu onean nago, krisi oren martxarekin. Azken sei hilabeteetako fruituak jasotzen ari naiz. M-aken diskoa, Delirium-ena, Negu Gorriak-ena disko onak dira, aurten Euskal Herrian egin diren bost edo sei onenen artean daude, eta hirurak nik produzitu ditut. Horrek sentiarazten nau, alde batetik, nahi dudana egiteko bitartekoak baditudala eta bestetik, egiten dudana estimatu egiten dela. Taldeek deitu egiten didate, eta euskal musiko interesgarrietakoekin ari naiz lanean, Xabier, Fermin, Iñigo... Benetan momentu onean nago."



**ERRASTI
KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Kontuz zezenarekin!!!

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25





**Txikiak
oinetakoak**

**Benetan festa handiak
opa dizkizue Txikiak**

Otalora Lizentziatua 28,
Tfnoa: 79 15 34 Arrasate

PUB HAIZEA

San Juanetan
bero gehienetan;
hartu gure bidea
aurkitzeko HAIZEA



Etxe-Aundi

Enpresa-bilera, ezkontza,
jaunartze, etabarretarako

Proba itzazu gure menu bikainak

Parrilan erretako jakietan
espezializatua



Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56 OÑATI

Jai Zoriontzuak

EROSKI k bat egin nahi du egunotako
zuon pozarekin eta jaietan ondo baino hobeto
pasa dezazuen opa dizue.



MAXI EROSKI

M O N D R A G O N





Los Iris taldea pioneroa izan zen Arrasateko musika "moderno"aren historian. 63. urtean jaio eta 78-ra arte iraun zuten. Gurean egindako argazkian hasierako formazioa agertzen zaigu: zutik, **Enrike Morras, Eusebio Viamonte, Belisario Manteca** eta **Juan Lopez de Vergara**, eta, Erdian jarrita, **Paco Morales**.

Dantzaldi-taldea ziren, denetarik jotzen zutelarik. Hasieran inguruko herrietako jaixetan eta azoka plaza edo "Verdury"an aritzen ziren, baina 65-ean ospea etorri zitzaion: "La Voz de España" antolatzen zuen hasiberrien lehiaketa irabazi eta handik

astebetera telebistan agertu ziren, "Salto a la fama" programan, lehiaketaren sari banaketaren egun berean.

Urte batzuk geroago berriro dei egin zieten telebistatik, "Primer aplauso" programarako. Oraingoan telebistan agertu ez (ez bide zitzaion gustatu abestia), baina bai Radio Madrident ("Pekenikes"-ekin batera) eta "Imperator" aretoan jo.

Azken sei urteetan Bilbo inguruetako aretoetan ari izan ondoren, 79-an zatiketa etorri zen. Baina Eusebio eta Dani (azken aldaketen ondorioz taldean sartutakoa) ez zeuden amore emateko moduan, eta "Oker" taldea sortu zuten (80-87); Oker-en ondoren

"Anker" etorri zen, Gasteizkoak partaide gehienak, eta horretan diraute, batez ere Iparraldean jotzen. Orduko ekitaldiak ezberdinak zirela ziozkun Eusebiok. Batez ere areto eta klubetan jotzen zen, ordu t'erdiz gehienera, eta eguneroko saiotan, aste edo hilabeteka kontratatuz. Gutxi irabazten zen, baina lan handia zegoen.

"Neketsua izaten zen lanean ihardun eta ondoren jotzera joan beharra, ia egunero; askotan zuzen lanera bueltatu behar izan dugu".

Baina lehen musikaria hobeto ikusita omen zegoen; egia esan, gustorago ibiltzen ziren. Halere, 27 urte geroago, hor dirau Eusebiok, betiko martxan.

ONTZI DENDA

Opariak, Sukalderako tresnak, Banbu eta tresneria

Kurtze txiki kalea 2, etxabea (San Andres auzoa)
Tfnoa: 79 73 90 ARRASATE



EZ
GAUDE
DENO
K



1 964. urtea zen "Los Dragones" taldea hasi zenekoa, Beatle-maniaren eraginpean. Artean hamabost urte inguru zituzten taldea osatzen zuten partaideek. Lasoren argazkian, **Jesus Lemos** eta **Jose Mari Larrañaga** zutik, **Alfonso Luis** makurtuta, eta jarrita **Alberto Zubiaga** eta **Javier Mascariano**, Arrasaten dirauten bakarrak.

Trasteak erosteko xoxik bat ere ez, eta egun batean Gasteizera hurbildu eta gurasoen izenean letrak sinatu zituzten; "A ze bronka etxean!" ziozkun Albertok.

Oso gaizki ikusita omen zeuden lehen ile luze eta gainontzeko itxura ez ohizkoak.

Batez ere bertsioak egiten zituzten, zenbait abesti propioekin batera, rokerokak edonola ere (kitarrak eta bateria).

Beste datu historiko bat: Musakolako S. Isidro elizako saloian entseiatu zuen lehen taldea izan zen. Auskalo zenbat igaro diren ordutik!

1970. urtean desegin zen taldea; ondoren beste hainbat taldetan hartu zuten parte banaka. Jose Mari Larrañagak, adibidez, euskal kantagintzaren bidea jorratu eta disko bat egin zuen, euskaraz grabatutako lehenetarikoa.

LUKO

**TESTETAN ONDO JANZTEARI
EZIN EGIN UKO!**

UDARAKO MODA
Maisu Aranón, PORTALOIAN

**Garibai
5**

tabernak
Jai zoriontsuak
opa dizkizu
Garbai 5, Arrasate



HAUXE DUZU AUKERA!

RENAULT EXPRESS

ETA 90.000 pta.
ZEURE AUTO ZAHARRA
EMATEN BADIGUZU

FINANTZIAKETA-ADIBIDEA Renault Express 1.100			
PSN/PVP 955.000 pta.	SARRERA 285.500 pta.	GERORATUTAKO KUOTA 668.500 pta.	
1.URTEA (14 kuota) 10.000 pta.	2.URTEA (14 kuota) 16.000 pta.	3.URTEA (14 kuota) 22.000 pta.	3.URTEA (14 kuota) 25.000 pta.


Baldintza berezi hauek hil bukaera arte balio dute Penintsular eta Balear Irlatan Express-modelo guzientzat, 2, 3 edo 4 urterako eragketetan. Eskaintza hau ezin dakieke gehitu beste promozio batzuei.
 T.A.E. %20.34

RENAULT, EUROPEAN AINTZINDARI INDUSTRI IBILGAILU ARINETAN

Zatoz ikustera



MECA Tailerrak. ARRASATE Tfnoa: 79 59 99



LOS JAGUAR'S

1 966. urtean sortu zen **Jaguar's** taldea. Artean Mane Sagasta (organista) adingabea zen, eta arazoak izaten zituzten diskoteketan jotzeko.

Orduko musika motak jorrazten zituzten (Beatles, Cha-cha-cha...) eragin zehatzik gabe; ez zuten abesti propiorik.

Denborapasa bezela hartzen zuten musikarena; adibidez, kruzero batean orkestra titularra izatea eskaini zieten, baina beroiek uko egin. Lanik ez zitzaien falta, edozein modutan, Euskal Herri guztian zehar, ia egunero izaten

bait zituzten ekitaldiak. Honez gain, guztiak lanean ari ziren.

Dantzaldi-orkestra ziren, bai Neguri eta Laredoko aristokratentzat, bai 70. hamarkadako euskeraren aldeko jaialdietan jo izan zutelarik. Pikoletok agertu eta hanka egin beharra ere egokitu zaie. Azkenaldian euskeraz abesten zuten batez ere.

Azkenean, istiluak zirela, Franco hil osteko egoera politizatua zela, ia egunero oso berandu etxeratzea zela (egunsentian berriro lanera itzultzeko), nekatuta, bertan behera utzi zuten taldearena. 77. urtea zen.

Argazkian (talde bezala egin zuten lehena, San Josepeko harrobian), **Jose Ramon Zugasti, Luis "Mane" Sagasta, Joaquin Barandiaran, Eloi Leibar** eta **Jose Roman Mondragon**.

Manek igande gaueko diskoteka saioak sentitzen ditu faltan: *"Hasieran saio garrantzitsua zen igande gauekoa, baina gero ez zen inor joaten; 5-6 pertsonentzako jo izan dugu azken garaietan; orduan bururatzen zitzaiguna egiteko aprobetxatzen genuen"*.

SEAT

Udalaitz, S.A.

OKASIO IBILGAILUAK, MARKA GUZTIETAKOAK

Markuleta Pabilioia Tfnoak: 79 18 80 / 79 21 25. Arrasate

**ARRASATE
PRESS
77 08 15**

— i K E R —



**SUKALDE
LILURAGARRIAK**

- BAINUGELA-ERAKUSKETA: Zarugalde kalea 52, Tfnoa: 79 99 42
- SUKALDE-ERAKUSKETA: Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 42

LASAGABASTER

JANTZIDENDAK



herriko
jaietan
zoriona
opa dizue

ESKAINITZA BIKAINA!

Errebelaketa bakoitzeko **beste pelikula bat,**
handiagotze bat eta albuma.



C	A	S	A
D	IKATZ	E	
F	O	T	O
G	R	A	
F	I	A	



Estibaliz Etorbidea 2,
Tfnoa: 27 09 22
01004 GASTEIZ

Iturriotz 8,
Tfnoa: 77 04 01
ARRASATE

Dendaraba merkatal zentrua
Tfnoa: 28 98 11
GASTEIZ